



Gorbeiaiko *Ángel de Sopena* aterpearen araudia

(BMFko 2015eko urtarrilaren 22ko asanbladan onetsia)

1.- ERREGULAZIOA

Ondorengo araudiak, BMF-FVM-ak kudeatzen duen *Ángel de Sopena* mendiko aterpearen erabilera arauak ezartzen ditu, bere erabilera egoki antolatzeko asmoz.

2.- HELBURUA

Aterpea, mendizaletasunaren praktika erraztera zuzenduta dagoen kirol-instalazio bat da.

Araudi honen helburua, bere instalazioen erabilera egokian eta erabiltzaileen bizikidetasunean jartzen du arreta.

3.- ZAINDARIA

Aterpeko jabeak edo kudeatzaileak izendatutako pertsona da, honen arduradun eta autoritate goren gisa izateko. Araudi hau betetzeari dagokionez bere instrukzioak jarraitu behar dira, aurrerago egon daitezken kexei kalterik egin gabe.

Zaindariak mendizaleak ostalari bezala jaso eta haietaz arduratu behar da, beraien behar logikoez arduratuz eta jokaera abegitsu zein edukazio onekoa jarraituz.

Ostatua antolatuko du, erabiltzaileen izen-hartze eta identifikazioaz arduratuko da, segurtasuna zainduko du, baita interes orokorrerako beharrezkoa den ordena errespetatzen dela ere. Behar hauek betetzeko behar diren neurri egokiak hartuko ditu une bakoitzean, horretarako mendizaleen laguntza ezinbestekoa izanik.

Istripurik edo larrialdirik egotekotan, salbamendu-lanak errazten lagunduko du, delako organismo eta zerbitzuekin kolaboratuz.

4.- IDENTIFIKAZIOA E IZEN-EMATEA

Aterpera heltzerakoan eta gaua eman nahi izatekotan, mendizale guztiak identifikatu behar izango dira, beharrezko dokumentazioa erakutsiz eta EMF-ko federatu bezala akreditatuz prezio-murriztapena lortzeko aukera izateko. Zaindariari gaua han emateko asmoa azaldu behar zaio, honek inskripzioa egin eta aterpean kokapena esleitzeko.

5.- LOGELAREN ERABILERA ETA GAU-EMATEA.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org info@bmf-fvm.org

Logela, neguan 17:00-etatik eta udan 19:00-etatik aurrera egongo da irekia. Salbuespen gisa zirkunstantzia hau aldatu ahal izango da ostatu emandako pertsonen eta bere beharren arabera, nolahi ere zaindariaren irizpidearen baldintzapean geratuz
Zaindaria gau bakoitzeko egiaztagiri bat emango du.

Prezioak gau bakoitzeko:

Federatuak 18 urtetik behera: 3,00 €

Federatuak 18 urtetik gora: 6,00 €

Ez Federatuak 18 urtetik behera: 6,00 €

Ez Federatuak 18 urtetik gora: 15,00 €

6.- EGONALDIAREN IRAUPENA

Kirol-instalazio bat dela kontuan harturik eta bere erabilgarritasuna mendizale-kopuru maximora hedatzeko asmoz, orokorrean, **ondoaz ondoko hiru gau baino gehiagotan ezin izango da gaua eman** aterpean. Zaindaria egiaztatutako ezinbesteko kasuetan ezik, bere baimena edukita edo plaza libreak badaude udan 19:00-tik aurrera, eta neguan 17:00-tik aurrera.

7.- LEHENTASUNAK

Aterpearen erabilera lehentasuna izango dute:

1. Misioan dauden **gaixo, gorabeheratsu eta sorosleak** eta Federazioak, mantenu-langile bezala, izendatutako haiek.
2. **Egiaztatutako erreserba** duten pertsonak, eta aterpera udako 19:00-ak, eta neguko 17:00 baino lehen iristen direnak.
3. Aterpean **gaua eman** aurkitzen diren pertsonak, ondoz ondoko hiru gau baino gutxiago egin dutenek, plaza libreak hartarako baldin badaude.
4. **EMF-lizentziak federatuak** dauden mendizaleak.
5. Zeanuri-ko mendizaleak, zaindariari alde aurretik jakinaraziz, eta aterpeko **alokairu emate klausulen** arabera.
6. **BMF-eko edo EMF-eko irakasleak**, karguaren berezko zeregin hezigarrietan arituz dabilzatenak.
7. **Helduera ordena** kontuan harturik, aterpeak ezarria duen ordutik aurrera, erabiltzaile gainerakoak.

8.- ERRESERBAK

Aterpearen erabilera hoberako **plaza-erreserba** gomendatzen da, 6.



artikuluaren arabera baimendutakoa baino egonaldi luzeagoa egin ezin delarik.

Erreserbak zaindariak egiaztatu behar izango ditu eta neguan **17:00-ak** arte eta udan **19:00-ak** arte mantenduko dira.

Plaza libreen gainean, EMF-a txarteladun **federatuak lehentasuna** izango dute, ez federatuen gainean.

Negu-sasoia azaroaren 1etik apirilaren 30era arte irauten du.

9.-PREZIOAK

Emandako zerbitzuen prezio zerrendek, **publikoaren esku** egon behar izango dira eta publikoki adieraziak, gainera BMF/FVM-ak ikuskatuak egon behar izango dira ere.

10.- ATERPEKO ARAU OROKORRAK

- **Errespetu eta gizabide-jarrera** mantentzea gainerako pertsonekin.
- **Segurtasun-arau** orokorrak errespetatzea.
- Zaindariak, gaua ematen duten mendizaleei, **bere zaborra eramateko poltsez** hornituko ditu bilketa-puntu hurbilenera arte. Zaindariak, berak eta sukalde-salmentek sortutako zaborrez bakarrik arduratuko da.
- **Sukalde librearen** erabilera aterpean ostatu emandako mendizaleentzat eskusibokoa da. Bere erabileraren ondoren, atea eta leihoak itxita utziko dira, instalazioak garbi eta suak itzalita.
- **Komunak eta jangela** sarbide librekoak dira erabiltzaileentzat, beti ere, edukiera maximoa kontuan izanez.
- Ikuskatu edo gertatzen den edozein **hondatze**, zaindariari lehenbailehen komunikatu behar izango zaio.
- Segurtasun-arrazoiengatik **zaindariari** aterpera heldu behar garela **abisatzea** beharrezkoa da, bereziki neguan.

Berariaz debekatuta geratzen da:

- **Su txikiak eta kandelak** piztea, edo hartarako zuzendutako lekutik kanpo **janaria prestatzea**.
- **Logeletan**, neguan, 9:30-etatik-17:00-etaraino eta udan 19:00-etaraino, **era jarraian egotea**
- **Altzariak** edo tresnak bere ohiko lekutik **mugitzea**.
- **Zakurik edo maindirerik gabe lo egitea**. Ez izatekotan, erabilera bakarreko maindire bat erosi behar izango da. Gainera burusiak ere eskuratu ahal izango dira, baldin eta zaku batez edo maindireaz erabiltzen badira.



- **Logeletara botekin** sartzeta. Hauek uzteko leku aproposa baitago.
- Gainerako erabiltzaileak eragotzi ahal dezaketen **soinu-aparatu** mota guztien funtzionamendua.
- **Animalia**-mota guztien sarrera.
- Hartarako prestatuak dauden **lekuetatik kanpo** lo egitea, ezinbesteko kasuak eta zaindariaren baimena izan ezik.
- Aterpearen barnean **erretzea**.

11.- KOMUNETAKO GARBITASUNAGATIK ITXIERA

Aterpeak espazio hau itxi ahal izango du garbitasun lanak egunean **bi ordutan** zehar egiteko.

12.-MAHAIEN ERABILERA

Gaua ematen ari diren mendizaleek mahaien erabilerako lehentasuna izango dute.

13.-GOSARI, BAZKARI ETA AFARI-ZERBITZUAK

Gaua ematen duten mendizaleek gosaldu, bazkaldu eta afaltzeko posibilitatea izango dute zaindarekin aurrerapen nahikoarekin hitzartuz.

Janariak zerbitzatuko diren orduetegiak:

Gosariak: 7:30-9:00 Bazkariak: 13:30-15:00 Afariak: 20:00-22:00

Aterpean **gaua ematen ez duten** mendizaleek ez dute zerbitzu hau jasotzeko bermea izango, une bakoitzean eta zaindariaren irizpidera dauden posibilitateek baldintzatuta geratuz.

14.-ISILTASUN-ORDUA

23:00-etatik 7:00-etara isiltasun osoa gordeko da, orduetegi horretatik kanpo egiten diren sarrerak eta irteerak ardura handienarekin eginez.

15.-JANGAI-SALMENTA

Zaindariak egiten duen zerbitzu hau 22:30-ak arte egingo da. Janarietarako ezarritako orduetegietatik kanpo, edari bero eta hotzak, latak eta poltsetako elikagaiak dispensatuko dira soilik.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4º PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org info@bmf-fvm.org

16.- ARAUDIAREN ONARPENA

Araudi honek eta baldintza partikular erantsiak BMF-FVM-ak ezarritako araudiaren araberakoak dira. Aterpearen erabilerak araudiaren erabateko **onarpena** dakar, araudia publikoa izanik.

Bere ez betetze larria, aterpea **uzteko** kausa izango da.

17.- ERREKLAMAZIO-ORRIA

Aterpean erabiltzaileek eskatu ahal izango duten **erreklamazio-orria** egongo da.

18º- KONTAKTUA

Edozein iruzkin, iradokizun edo kritika egiteko, ondorengo helbidera zuzen zaitezke:

BMF-FVM

Martín Barua Picaza 27,4º

48003 Bilbao, BIZKAIA

Tel. 94 443 17 34/Fax 94 444 35 62

info@bmf-fvm.org

www.bmf-fvm.es